

3. FUNTSEZKO ELKARTEAK

Zeintzuk dira behar ditugun bazkideak gure produktuak funtziona dezan?

Gure enpresa aurrera eramateko beharrezkoa da guztion partaidetza eta talde lana. Horretarako, lana eraginkorra izateko, bazkide bakoitzaren abileziak kontuan hartuko dira.

Ane: hornitzaileekin kontuaktuan jar daiteke, izan ere, harremanetarako abilezi handia du.

Izaskun: kotxeak gustatzen zaizkio eta horregatik kotxe enpresa asko ezagutzen ditu eta haiekin harremanetan jar daiteke.

Lidia: erraztasun handia dauka publikoan hitz egiteko eta idazteko, beraz gobernuarentzako zein publikoarentzako errepidearen inguruko kontzientzia kanpainak egin ditzake.

Naiara: harremanetan ona da eta jendea konbentzitzen ona da, orduan bezeroei produktua saldu ahal die.

Naroa: ekonomia eta administrazio eta kudeaketan prozesuko klaseetan dabil, beraz kontabilitateaz ardura daiteke.

Zergaitik dira bazkideak garrantzitsuak gure produktuak funtziona dezan?

Bazkide bakoitzak egiten dituen aportazioak eta lanak enpresa egunero aurrera ateratzea eta produktuak arrakasta izatea lortuko dute.



Zergaitik dira hornitzaileak garrantzitsuak gure produktuak funtziona dezan?

Enpresa industrialak dira guri aparatua egingo digutenak. Guk hornitzaile horiei erosi egingo diegu teknologia gero beste enpresa batzuei saltzeko, kotxeak egin eta saltzen dituzten enpresei hain zuzen ere.

Zertarako eratu behar ditugu hornitzaile- eta bazkide-sareak?

- Gure negozio eredia optimizatzeko. Hornitzaileek aparatua kotxeetan jartzeko moldatzen badute (kotxea martxan jarriz edo blokeatuz) eta prezio onean saltzen badigute, salduko dugun produktua guztiz eraginkorra izango da. Eta ondorioz bezeroek dituzten helburuak beteko eta indartuko dira: kalitatezkoa izatea, prezio onekoa, erabilgarria eta publikoaren ziurtasuna bermatzea.



- Gure produktuaren arriskuak murrizteko. Izan daiteke aparatuan akatsen bat egotea, eta orduan arazoa hornitzaileen esku geldituko litzateke.

- Baliabideak eskuratzeko. Izan ere, hornitzaileek guri teknologia guztiz osatuta emango digute, eta guk beraz soilik komertzializatu eta saldu egin beharko dugu.